HERRIZAINGO SAILA

6106

EBAZPENA, 2008ko urriaren 6koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, 450/08 Prozedura Laburtuari buruzko Administrazioarekiko auzi errekurtsoan interesa izan lezaketenak deitzen dituena. Aipatu errekurtsoa Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian bideratu da Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko apirilaren 14ko Ebazpenaren kontra; izan ere, ebazpen horrek aukerako berraztertze errekurtso hau ezetsi zuen: Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2008ko otsailaren 8ko Ebazpenaren kontra jarritakoa. 2008ko otsailaren 8ko ebazpenaren bitartez, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ikerketa Kriminaleko Ofizialondoko Kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako deia egin zen (martxoaren 5eko EHAA, 46. zk.).

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (450/08 Prozedura Laburtua) aurkeztu da, eta Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak jatorrizko espediente administratiboa bidaltzeko eskatu duenez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondorengo hau jakinarazten dut: aipatutako prozeduran interesatuta dauden guztiak euren interes legitimoen defentsan azal daitezela, egoki baderitzote, bederatzi eguneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Arkaute, 2008ko urriaren 6a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

6106

RESOLUCIÓN de 6 de octubre de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se emplaza a los posibles interesados en el recurso contencioso-administrativo perteneciente al Procedimiento Abreviado 450/08 que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 3 de Vitoria-Gasteiz, interpuesto contra la Resolución de 14 de abril de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se desestima el recurso potestativo de reposición interpuesto contra la Resolución de 8 de febrero de 2008, de la Directora de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convoca procedimiento selectivo para ascenso a la Categoría de Suboficial de Investigación Criminal de la Escala de Inspección de la Ertzaintza (BOPV n.º 46, de 5 de marzo).

Habiéndose interpuesto el recurso contencioso-administrativo (Procedimiento Abreviado 450/08) identificado en el encabezamiento, y habiéndose solicitado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 3 de Vitoria-Gasteiz, la remisión del expediente administrativo original, de conformidad con lo previsto en el artículo 49.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, por la presente se emplaza a todos aquellos que puedan ostentar la condición de interesados en el procedimiento de referencia para que, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco, comparezcan en el procedimiento citado en defensa de sus legítimos intereses, si así lo considerasen oportuno.

En Arkaute, a 6 de octubre de 2008.

La Directora de la Academia de Policía del País Vasco,
GUADALUPE CAMINO GARCÍA.